**DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA 2020-2023**

**5. ALDAKETA**

**2022/04/12ko Udalbatza**

**PLAN ESTRATÉGICO DE SUBVENCIONES 2020-2023**

**MODIFICACIÓN Nº 5**

**Pleno de 12/04/2022**

| | |
|---|---|
| **B – Kultura eta Euskara kontuetan**, Arrasateko Udalak, Plan hau indarrean dagoen aldian, diruz lagunduko ditu diru-laguntza programa edo lerro hauek: | **B - En materia de Cultura y Euskera**, el Ayuntamiento de Arrasate, durante el período de vigencia del presente Plan, subvencionará los siguientes programas o líneas de subvención: |

**10.- Euskara sustatzeko helburuarekin, errotuluak, irudi korporatiboa, web orria eta TicketBAI fakturazio sistema euskaraz edo ele bitan jartzeko, enpresen eta komertzioen gastuak finantzatzeko laguntzen programa**

- **Xedea:** Programa honen xedea da egoitzako errotuluak, korporazio irudia, web orria , edo TicketBAI fakturazio sistema euskaraz edo ele bitan jartzen duten entitateentzako diru-laguntzak ematea.

- **Udalak zer lortu nahi duen:**

  - Euskararen erabilera sustatzea merkataritza eta enpresa eremuan.

  - Komertzio eta enpresetako korporazio irudia eta kanpoko identifikazio ikurrak euskalduntzea.

- **Norentzat:** Oinarri hauen bidez erregulatzen diren diru-laguntzak Arrasaten helbide fiskala duten pertsona fisikoek edo pertsona juridikoek eskatu ahal izango dituzte, edota jarduera ekonomikoa egiten duenek, Arrasaten dauden lokaletan.

**10.- Programa de ayudas para financiar gastos de empresas y comercios en relación con el fomento del euskera en la colocación de rótulos, elaboración de su imagen corporativa, sitio web y el sistema de facturación TicketBAI.**

- **Objeto**: Es objeto del presente programa la concesión de subvenciones a entidades que ponen en euskera, íntegramente o bilingüe, los rótulos de sus sedes, su imagen corporativa, su sitio web o el sistema de facturación TicketBAI

- **Efectos pretendidos**:

  - Promocionar la utilización del euskera en el ámbito comercial y empresarial

  - Euskaldunizar la imagen corporativa y los signos identificativos externos de comercios y empresas.

- **Destinatarios**: Las subvenciones que se regulan a través de estas bases, podrán ser solicitadas por las personas físicas o jurídicas que tengan su domicilio fiscal en Arrasate, o bien desarrollen su actividad económica, en locales ubicados en Arrasate.

- **Ematekoaren modalitatea:** Norgehiagoka, deialdi orokorra egin eta gero.

- **Zenbatekoa eta aurrekontu aplikazioa:** 4.000 €, "1.02.00.471.335.00.00- Ekintzak kontu-sailaren kontura, eta, 6.000 "1-02-10-471-335-00-01 – TicketBAI euskaraz" kontu sailaren kontura.

- **Modalidad de Concesión**: Concurrencia competitiva, previo cumplimiento requisitos establecidos en la misma.

- **Importe y aplicación presupuestaria**: 4.000 € con cargo a la partida "1.02.00.471.335.00.00-subvención Ekintzak –, y 6.000€ con cargo a la partida presupuestaria "1-02-10-471-335-00-01 – TicketBAI euskaraz".

**17.- Goikobalu abesbatzaren jarduera finantzatzeko den programa**

- **Xedea:** Programa honekin Goikobalu abesbatzaren jarduerari sostengua eman eta finantzatu nahi dugu, eta bide batez bermatu herrian abesbatzaren eskaintza eta aktibitabea bizirik mantentzea

- **Udalak zer lortu nahi duen:**

- Kultura eskaintza aberastea

- Bideragarri egitea Goikobalu abesbatzaren jarduera

- Abesbatza eskaintza bermatzea herrian.

- **Norentzat:**

Goikobalu Abesbatza.

- **Ematekoaren modalitatea:** izendun dirulaguntza hitzarmen erregimenean

- **Zenbatekoa eta aurrekontu aplikazioa:** 10.000 euro, 1.0200.481.334.01.01 "Goikobalu dirulaguntza".

**17.- Programa destinado a financiar la actividad de Goikobalu Abesbatza**

- **Objeto:** A través de este programa se pretende dar sustento y financiar la actividad de Goikobalu Abesbatza, favoreciendo la oferta y actividad de una coral en el municipio

- **Efectos pretendidos**:

- Enriquecer la oferta cultural

- Hacer viable la actividad de Goikobalu abesbatza

- Favorecer la oferta de una coral en el municipio.

- **Destinatarios**:

Goikobalu abesbatza

- **Modalidad de Concesión:** subvención nominativa en régimen de convenio.

- **Importe y aplicación presupuestaria**: 10.000 euros, a cargo de la partida 1.0200.481.334.01.01 "Subvención a Goikobalu"

**18.- Dirulaguntza, Kulturolako erabiltzaile izango diren irabazi asmorik gabeko Arrasateko Kultura elkarteei ekipamendua erosteko.**

- **Xedea:** Kulturolako erabiltzaile izango diren irabazi asmorik gabeko Arrasateko kultura elkarteei ekipamendua erosten laguntzea.

- **Udalak zer lortu nahi duen:**

- Kultura ekipamendu berriaren hornikuntzan laguntzea

- Elkarteei laguntza ematea inbertsioek haien ez jarduera oztopatzeko

- Elkarteei haien jarduera burutzeko beharrezkoa izango duten ekipamendu eta altzarien hornikuntza erraztea

- **Norentzat:**

Kulturolako erabiltzaile izango diren irabazi asmorik gabeko Arrasateko kultura elkarteak.

- **Ematekoaren modalitatea:** zuzeneko dirulaguntza.

- **Zenbatekoa eta aurrekontu aplikazioa:** 30.000 euro, 1.0200.781.333.00.01 "Kultura elkarteei dirulaguntza ekipamendua eskuratzeko".

**18.- Subvenciónes a las asociaciones sin ánimo de lucro de Arrasate que serán usuarias de Kulturola para la adquisición de equipamiento.**

- **Objeto:** Colaborar en la adquisición de equipamiento a las asociaciones culturales sin ánimo de lucro de Arrasate que serán usuarias de Kulturola.

- **Efectos pretendidos**:

- Colaborar en la dotación del nuevo equipamiento cultural

- Apoyar a las asociaciones usuarias de Kulturola para que las inversiones necesarias no sean un impedimento para el desarrollo de sus actividades

- Favorecer la adquisición de equipamiento para el desarrollo de actividades de las asociaciones.

- **Destinatarios**:

La subvención está dirigida a las asociaciones que serán usuarias de Kulturola

- **Modalidad de Concesión:** subvención directa.

- **Importe y aplicación presupuestaria**: 30.000 euros, a cargo de la partida 1.0200.781.333.00.01 "Subvención a asociaciones culturales para equipamiento"

| | |
|---|---|
| **C.- Garapen Komunitarioari buruz,** Arrasateko Udalak, Plan honen indarraldian, programa hauek lagunduko ditu diruz: | **C.- En materia de Desarrollo Comunitario,** el Ayuntamiento de Arrasate, durante la vigencia del presente Plan, subvencionará económicamente los siguientes programas: |

**15.- Aisialdi ekintzetan herriko haur eta nerabeen parte hartzea sustatzeko dirulaguntza.**

- **Xedea**: Programa honen xedea da dirulaguntzen bidez sustatzea haur eta nerabeen parte hartzea eskolaz kanpoko ekintzetan.

- **Udalak zer lortu nahi duen**: Sustatzea haur eta nerabeen parte hartzea eskolaz kanpoko jardueretan. Horien bitartez, aukera ematen zaie euren zaletasunak eta trebetasunak garatzeko, berdinkideekin batera. Horrek eragina du haurraren garapen osasungarrian eta gizarteratzea errazten du.

  Generoen arteko parekotasuna eta aukera berdintasuna ere sustatu nahi dira.

  Ikasturtean zehar burutzen diren eskolaz kanpoko ekintzak eta oporraldian egiten direnak bereizten ditugu.

  Ikasturtean zehar burutzen diren eskolaz kanpoko jardueren artean dago Eskola Kirola.

  Oporretan egiten direnen artean, udalekuak. Programa honen bidez, sustatu nahi da haur eta nerabeen parte hartzea udalekuetan, irabazi asmorik gabeko tokiko elkarteek antolatutako udalekuetan zehazki.

- **Norentzat:**

**15.- Subvención para fomentar la participación de los niños, niñas y adolescentes arrasatearras en actividades de ocio.**

- **Objeto:** El objeto del presente programa de subvenciones es fomentar la participación de los niños, niñas y adolescentes en actividades extraescolares.

- **Efectos pretendidos**: Se pretende fomentar la participación de los niños, niñas y adolescentes en actividades extraescolares. A través de estas se les ofrece la oportunidad de desarrollar sus aficiones y habilidades, junto con sus iguales. Lo cual repercute en su desarrollo saludable y facilita su integración social.

  Se pretende así mismo fomentar la igualdad de género y la igualdad de oportunidades

  Diferenciamos entre actividades que se realizan durante el curso escolar y las que se realizan en el periodo vacacional.

  Entre las que se desarrollan durante el curso está el programa Eskola Kirola.

  Entre las que se realizan en vacaciones, las colonias. A través de este programa se pretende fomentar la participación de las niñas, niños y adolescentes en las colonias organizadas por asociaciones locales sin ánimo de lucro.

- **Destinatarias:**

Laguntza hauek jaso ahal izango dituzte baldintza hauek batera betetzen dituzten familia unitateek:

a) Arrasaten erroldatuta egotea.

b) Deialdiaren oinarrietan ezarritako dirusarreren baldintzak betetzea.
c) 3-18 urte bitarteko seme-alaba/k izatea, programa hauetako batean edo bietan parte hartzen:

c1- Ikasturtean zehar: Eskola Kirolako jardueratan.

c2- Oporretan: herriko elkarteek antolatutako udalekuetan parte hartzea.

- **Ematekoaren modalitatea:** Norgehiagoka, deialdi orokorra egin eta gero.

- **Zenbatekoa eta aurrekontu aplikazioa:** 10.000 €, *1-0410.480.337.20.02 aisialdi ekintzetan haur eta nerabeen parte hartzea sustatzeko dirulaguntzak* partidaren kontura.

Podrán optar a esta subvención las unidades familiares que cumplan estos requisitos simultáneamente:

a) Estar empadronada en Arrasate.

b) Cumplir los requisitos relativos a los ingresos fijados en las bases de la convocatoria.
c) Tener hijo(s) y/o hija(s) de 3-18 años que participen en uno de estos programas o en ambos:

c1- Durante el curso: en actividades de Deporte Escolar.

c2- En vacaciones: en colonias organizadas por asociaciones locales.

- **Modalidad de Concesión:** Concurrencia competitiva, previa convocatoria general

- **Importe y aplicación presupuestaria:** 10.000 €, con cargo a la partida *1-0410.480.337.20.02 Subvenciones para fomentar la participación de los niños, niñas y adolescentes en actividades de ocio.*

**16.- Udan udaleku irekiak antolatuko dituzten Arrasateko elkarteentzat dirulaguntzak.**

**15. programan txertatzen da.**

**16.- Ayudas económicas a asociaciones con sede en Arrasate con el objeto de organizar colonias abiertas durante el verano.**

**Se integra en el programa 15.**

**17.- Dirulaguntza hauen xedea da aisialdi, kirol eta hezkuntza eremuko langileak prestatzea EKKO egitasmoan dinamizatzaile gisa parte hartzeko.**

**17.- Subvenciones para la formación de personal del ámbito del tiempo libre, del deporte y de la educación, para su participación como dinamizadores y dinamizadoras en el programa EKKO.**

- **Xedea:** Programa honen xedea da dirulaguntzak ematea herriko Txatxilipurdi eta LEK elkarteei eta LH-ko ikastetxeei, EKKO egitasmoa dinamizatuko duten begiraleak prestatzeko. Asmoa da 20 pertsonako talde bat prestatzea. Taldea osatzeko beharrezkoa balitz, herriko beste hainbat kirol eta kultur elkartek ere jaso ahalko lituzkete laguntza hauek.

- **Udalak zer lortu nahi duen:** Udalak EKKO egitasmoa martxan jarri nahi du (Eskola Kirola Komunitatea Osasuna). EKKOren helburua da LH 5. eta 6. mailetako ikasleek gizarte trebetasunak bereganatzea. EKko abian jarri aurretik, beharrezkoa da ikasleekin lan-saioak dinamizatuko dituzten langileak prestatzea. Dirulaguntza hauen bitartez, udalak baliabide ekonomikoak eskaini nahi die herriko elkarte eta ikastetxeei EKKOko dinamizatzaileak prestatzeko.

- **Norentzat:** Laguntza hauek jaso ditzakete, Leintz Eskola Kirolak, Txatxilipurdik eta herriko ikastetxeek. Horien artean begirale kopurua 20ra iritsiko ez balitz, herriko beste elkarte batzuk ere, kultur edo kirol arlokoak, jaso ahalko lituzkete.

- **Ematekoaren modalitatea:** Izendun dirulaguntza, hitzarmen erregimenean.

- **Zenbatekoa eta aurrekontu aplikazioa:** 32.000 €, ……………………………. kontu-sailaren kontura.

- **Objeto:** El objeto de este programa es la concesión de subvenciones a las asociaciones locales Txatxilipurdi y LEK y a los centros educativos de EP para la formación de las personas que dinamizarán el programa EKKO. La idea es formar un equipo de 20 personas. Si fuera necesario para completar la formación del grupo, también podrían beneficiarse de estas ayudas otras asociaciones deportivas y culturales de la localidad.

- **Efectos pretendidos:** el ayuntamiento quiere poner en marcha el proyecto EKKO (Escuela Deporte Comunidad Salud). EKKO es un programa para la adquisición de habilidades sociales por parte del alumnado de 5º y 6º de EP. Como paso previo necesario a la puesta en marcha de EKKO, es preciso formar al personal que dinamizará las sesiones de trabajo con el alumnado. A través de estas ayudas, el ayuntamiento pretende facilitar recursos económicos a las asociaciones y centros educativos locales, para la formación del personal que ejercerá las funciones de dinamización de EKKO.

- **Destinatarios:** Pueden beneficiarse de estas ayudas, Leintz Eskola Kirola, Txatxilipurdi y los centros escolares de la localidad. Si entre ellos, el número de monitores no alcanzara los 20, también podrían recibirlas otras asociaciones locales, culturales o deportivas.

- **Modalidad de Concesión:** subvención nominativa, en régimen de convenio.

- **Importe y aplicación presupuestaria**: 32.000 €, con cargo a la partida……………….

| | |
|---|---|
| **E- Toki Merkataritzari buruz,** Arrasateko Udalak, Plan honen indarraldian, programa hauek lagunduko ditu diruz: | **E- En materia de Comercio Local,** el Ayuntamiento de Arrasate, durante la vigencia del presente Plan, subvencionará económicamente los siguientes programas: |

| | |
|---|---|
| **8.- "Ibai-Arte Merkataritza Elkartea"ri laguntza ematea 2022ko gabonetan Arrasateko herrigunea dinamizatu eta hainbat jarduera antolatzeko.** | **8.- Concesión de ayuda a la asociación de comerciantes Ibai-Arte para que en las navidades de 2022 dinamice el casco urbano de Arrasate y organice diferentes actividades.** |
| **Programa hau kirolak sailetik Toki merkataritzara pasatzen da.** | **Este programa pasa del Area de Deportes al Area de Comercio Local.** |
| **Xedea:** Ibai-Arte Elkarteak 2022ko gabonetan Arrasateko kaleak dinamizatu eta ekintza desberdinak antolatzea. | **Objeto:** La dinamización de las calles de Arrasate y la organización de diferentes actividades por parte de la Asociación Ibai-Arte las navidades del año 2022. |
| **Udalak zer lortu nahi duen:** | **Efectos pretendidos**: |
| - 2022eko gabonetan Arrasateko herri gunea girotzea eta dinamizatzea. | - Dinamizar y ambientar el casco urbano de Arrasate las navidades de 2022. |
| - Kaleko giroa dinamizatuz, familiek eta norbanakoek giro atseginean murgildu eta honen eraginez bertako establezimenduetan kontsumoa sustatzea. | - Dinamizando el ambiente de las calles, que las familias e individuos tengan un ambiente agradable y con su efecto se fomente el consumo en los establecimientos locales. |
| - Jarrera positiboa eta baikorra transmititzea. | - Transmitir una actitud positiva y optimista. |
| **Norentzat:** | **Destinatarios**: |
| Diru-laguntza zuzenduta dago Ibai-Arte Merkataritza Elkarteari. | La subvención está dirigida a la asociación de comerciantes de Ibai-Arte. |
| **Ematekoaren modalitatea:** zuzeneko diru-laguntza. | **Modalidad de Concesión:** subvención directa. |
| **Zenbatekoa eta aurrekontu aplikazioa:** 20.000 euro, "1-1200-481-431-00-01 Diru-laguntza Ibai-Arte Hitzarmena-Gabonak" kontu sailaren kargura. | **Importe y aplicación presupuestaria**: 20.000 euros, a cargo de la partida "1-1200-481-431-00-01 Subvención convenio Ibai-Arte-Gabonak". |